



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea



Viceconsejería de Innovación Docente

Ikasketen Berrikuntzako Errektoreordea

1/ IRAKASGAIAREN DATUAK:

IKASTEGIA: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

TITULAZIOA : Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea.

IZENA: Ekoizpena eta Errealizazioa Irratian

KODEA: 13057

GRADUA/GRADUONDOA: gradua

MAILA: 4. maila

KODEA : COMUN202

MOTA : DERRIGORREZKOA

GAURKO TITULAZIOAREN KREDITU KOPURUA: 6 KREDITU

ECTS-KO ARAUEN ARABERAKO KREDITU KOPURUA: 5

HIZKUNTZA: Euskara

IKASTURTE AKADEMIKOA: 2006/2007

2/ IRAKASLEAREN DATUAK

IZENA ETA ABIZENAK: Miren Arantza Gutierrez Paz

NAN: 15977014

IRAKASGAIA EMATEN DEN IKASTEGIA : Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

SAILA: Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea.

TELEFONOA: 94 601 51 79

E-MAIL: mirenarantza.gutierrez@ehu.es

WEB-ORRIA: www.blogak.com/irratiartea eta www.ehu.es/irratia (eraiketa-prozesuan)

3/ GAITASUNAK:

3-1/ Zeharkako gaitasunak*.

.....
.....
.....
.....

3-2/ Titulazioaren profilari dagozkion gaitasunak*.

.....
.....
.....
.....
.....

3-3 /Irakasgaiaren kompetentzia espezifikoak

1. Irrati-errealizazioaren prozesu osoa burutzeko helburuz, irratsaio bat ekoitzi. Irratsaio baten ekoizpenaren atalak (ideiatik emanaldiraino) finkatu eta garatu ondoren, proiektuaren bideragarritasuna praktikan bermatu eta irrati-estudioan grabatu, muntatu eta aukeraturiko bidetik emititu.
2. Irrati-errealizazioaren oinarrian dauden ezagutza tekniko eta teknologikoetan trebatzeko asmoz, estudioko nahasketa-mahaiak zein pista anitzeko editoreek eskaintzen dituzten aukera guztiak aztertu eta irrati-muntaketetan erabili.
3. Irrati-ekoizpenean parte hartzen duten subjektuen lan-errutinak finkatu eta praktikan taxutu, baita prozesuaren barruan norberak bete beharreko eginkizuna ebaluatu ere.
4. Multimediaen garaian, irratiaren bide eta erronka berriak ezagutu eta etorkizuneko proposamenak aztertu eta balioztatu, hedapenaren alorrean (irrati digitala, Interneten bidezko emanaldiak, Podcast...) zein errealizazioan (sormen-irratsioak, formula berritzaileak, parte-hartzerako gune berriak...)

* Batez markaturiko gaitasunak "titulazioaren gidan" definituko dira eta oraingoz ez da derrigorrezkoa idaztea. Zerbait jartzen bada ongi etorriko da aportazio modura.

4.- GAI -ZERRENDA

Gai-zerrenda honetan, ikasgaiaren oinarri teorikoa osatzen duten temak agertzen dira soilik. Esan beharra dago, ikasgaiaren atal nagusia praktikoa dela, eta, beraz, ezagutza hauen aplikazio praktikokoan datza ikastaroaren funtsa.

I. Sarrera: Irrati-ekoizle onaren ezaugarriak. Irratsaio baten ekoizpena urratsez urrats: hasierako ideiatik errealizazio praktikora artean. Irratsaioaren errealizazioaren ebaluaketa.

Aldaketak lan-eratan, teknologia berrien eraginaren ondorioz.

II. Soinu-ekoizpen digitala. Oinarriak eta ereduak. Estudio digitala eta aldaketak ekoizpen-prozesuan. Soinu editoreak irrati-estudioaren barruan: *Cool Edit, Goldenwave, Audacity, Soundforge...* Soinu-nahasketa eta muntaketa ordenagailuan: pista anitzeko edizioa.

III. Irrati-ekoizpenaren eta errealizazioaren ohiko ekintzak eta proposamen berriak. Irrati-genero nagusiak: magazinak, musika-, kirol eta kultur saioak, irrati-formulak... Joerak: irratsaioen eskaintzan izandako aldaketak eta planteamendu berriak. Irrati espezializatua eta sormen-irratia: irrati-drama, soinu-paisaiak, soinu-poesia eta soinu-testuak (*Roadmovies, Test-sound compositions, ready-made, sound collage, Ars acustica, Kunstradio...*)

IV. Erritmo eta jarraitutasuna. Irratiaren soinu-irudia. Irratsaioaren barneko loturak eta programazio-parrillaren koherentzia. Publizitatea eta jarraitutasuna. Irrati-egitasmoen bideragarritasuna programazioaren baitan.

V. Irratiaren eskenatoki berriak. Internet eta irratia: bi medioen arteko sinbiosia (webcast, podcast, e.a.); Irrati-hedapen digitalaren egoera (DAB, IBOC; DRM, e.a.); euskarri eta hedapen-bide berriak: mp3, sakelako telefonoa... Irratia esparru multimediatan.

5.- METODOLOGIA.

IKd: Ikasleak lanean ematen duen denbora (Orduak) ./IRd: Irakasleak ematen duen denbora ikaslearen zereginak atenditzeko

B:Bertaratzekoa; ERB: Erdi-bertaratzekoa; EZP: Ez-bertaratzekoa

Gaitasun espezifiko aren zenbakia	Zeregin mota	B/ER B/EP B	IKd	IRd	Gela mota/ baliabide materialak	Talde mota	Barkako/ taldeko lana
1,3	<p>Irratsaio baten proiektu osoa planifikatu eta idatzi. Saioaren ideia orokorra, tematikoa eta poetikoa azaldu. Bideragarritasun ekonomikoa justifikatu; gastuak, inbertsioak eta finantzabideak aztertu. Emanaldiaren bideragarritasuna argudiatu: nori zuzendutako irratsaioa den (justifikatu); zein ordu-tartean kokatzen den (zergatik?); zenbat emanaldi aurreikusten diren (argudiatu); proposatzen dituen berrietasunak beste irratsaioekiko.</p> <p>Irratsaioaren gidoi edo eskaleta teknikoa eratu, baita parte-hartzaile bakoitzaren lana banatu</p>	ERB	15	15	<ul style="list-style-type: none"> - Gelan zein gelatik kanpo (etxean, liburutegian...) eginiko lanean oinarrituta. - Ikasgaiaren web orrialdean (Ekasi edo Moodle plataforman zein beste motako bidea aukeratuta) informazioa eskuratzeko baliabideak guztion eskura jarriko dituzte irakasleak zein ikasleak. 	Talde txikia	Taldeko lana

1,2,3	<p>Irratsaioaren ekoizpena eta errealizazioa. (Irratsaioaren iraupena 45' da eta gutxienez honako tarte hauek izan behar ditu: sarrera- eta irteera-karetaren muntaketa; 20"ko bi iragarki; 20"ko bi autopromo; erreportaje edo/eta elkarrizketa; pista anitzeko editorean editaturiko esketx edo muntaketa; trantsizioak, jingleak, aurkezpenak; eta ikasleek aukeraturiko gainerako atalak, emanaldi osoa bete arte)</p> <p>(1) Dokumentazioa, informazioa eta irratsaioan parte hartuko duten soinuak metatzea)</p> <p>(2) Irratsaioaren gidoian sarturiko tarte grabaketa eta edizioa estudioan.</p> <p>(3) Kanpoko grabaketak (elkarrizketak, erreportajea,)</p> <p>(4) Zuzeneko emanaldia</p>	ER B B EB B	10 30 17,5 2,5	30 10	<ul style="list-style-type: none"> - Irrati-laborategia <ul style="list-style-type: none"> o 4 irrati-estudio eta 2 kabina (ordenagailua eta Internetekiko konexioa) - Ekipo eramangarria <ul style="list-style-type: none"> o Mini-disk eramangarriak o Mp3 o Mikroak o Soinu-mahai eramangarriak - Internet - Soinu-iturri ezberdinak (diskoak, DVDak, bideoak...). 	Talde txikia	Taldeko lana
-------	--	-------------------------------------	-------------------------------------	--------------	--	--------------	--------------

1,2,3,4	Gai-zerrendako ikasgaien inguruko azterketa teorikoa eta eztabaida.	B ERB	15 22,5	45	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasgelan: irakasleak gai-zerrendako ikasgaiak aurkeztuko ditu - Ikasgaiaren webgunean gai-zerrendako gaiak aurkeztu eta eztabaidatu (irakasleak zein ikasleek). 	Talde osoa	Banakako lana
1,3	Irratsaioaren ekoizpen eta errealizazioan norberak jokaturiko paperari buruzko hasunarketa pertsonala.	EPB	7,5	40	<ul style="list-style-type: none"> - Gelan zein irakaslearen tutoretza-bulegoan (elkarrizketa pertsonalizatuak) 	Talde osoa	Banakako lana
4	Etorkizuneko proposamen bati buruzko artikulua bat (5-10 orrialde)	EB	15	15	<ul style="list-style-type: none"> - Gelan zein gelatik kanpo (etxean, liburutegian...) egin beharreko lana. - Ikasgaiaren webgunea. 	Talde osoa	Banakako lana

6/ EBALUAZIOA

Gaitasun espezifikoaren zenbakia.	Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpideak	Azken notaren ehunekoa
1,2,3 Irratsaio baten ekoizpena eta errealizazioa	Irratsaioaren ideia, planifikazioa eta gidoia jasotzen duen proiektu idatzia.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ideia orokorra, tematikoa eta poetikoa (eta horren justifikazioa). ➤ Proiektuaren bideragarritasunaren justifikazioa. ➤ Lan-banaketaren antolaketa. ➤ Gidoia eta idazkera 	% 10
1,2,3 Irratsaio baten ekoizpena eta errealizazioa	Irratsaioa osatzen duten atalen dokumentazioa eta soinu-iturrien aukeraketa eta grabaketa.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Erabilitako iturrien ugaritasuna (zenbat eta ugariago, hobeto). ➤ Iturrien egokitasuna eta orijinaltasuna. ➤ Dokumentazioaren ugaritasuna eta egokitasuna. ➤ Ikasleen eskura jarritako teknologiaren erabilpena (ekipo mugikorrak, <i>audacity</i> eta soinu-baliabideak Interneten) 	% 15
1,2,3 Irratsaio baten ekoizpena eta errealizazioa	Irratsaioaren errealizazioa estudioan.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Gidoien orijinaltasuna eta egokitasuna. ➤ Muntaketan zailtasuna eta konplexutasuna. ➤ Teknologia menperatzeko gaitasuna (erabilitako euskarriak, edizioa...) ➤ Teknologiaren erabilpenaren zuzentasuna (soinu-nibelak, <i>raccord</i>, jarraitutasuna). ➤ Talde-lanaren antolaketa 	% 30

Gaitasun espezifikoaren zenbakia.	Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpideak	Azken notaren porzentaia
1,2,3 Irratsaio baten ekoizpena eta errealizazioa	Zuzeneko emanaldia Estudioan.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Gidoiaren jarraitutasuna: aurkezpenak, trantsizioak... ➤ Emandako denborari egokitzea. ➤ Taldeko kideen parte-hartzea. ➤ Lokuzioa eta aurkezpena. ➤ Zuzentasun teknikoa eta arazoei aurre egiteko gaitasuna (soinu-arazoak konpontzeko baliabideak...). 	% 10
1,2,3	Irratsaioaren ekoizpena eta errealizazioari buruz norberak egindako hausnarketa (2-5 or.).	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Argudioak eskaintzeko gaitasuna. ➤ Hausnarketaren heldutasun maila. ➤ Iritzien azalpen arrazonatua. 	%5
1,2,3,4	Gai-zerrendako gaien inguruko eztabaida gelan zein ikasgaiaren webgunean.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Parte-hartzea: zenbakitan zein kalitatean. Parte hartzeaz gain, oso garrantzitsua baita nolako ekarpenak egiten diren; haien orijinaltasuna, berritasuna, egokitasuna... 	% 15
4	Irratiaren etorkizuneko erronkei buruzko artikulu idatzia.	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Argudioen sendotasuna. ➤ Erabilitako iturri bibliografikoak zein elektronikoak. ➤ Norberak garaturiko iruzkinaren azalpena. 	% 15

7/ BIBLIOGRAFIA.

7-1: OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Liburuak	Dokumentu elektronikoa
GUTIERREZ PAZ, Arantza. <i>Ekoizpena eta Errealizazioa Irratian</i> . UEU; Bilbo, 2001.	
GUTIERREZ PAZ, Arantza eta FERNANDEZ ASTOBIZA, Itxaso. <i>Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa</i> . UEU; Bilbo, 2005.	
PALAZIO, Gorka Jakobe. <i>Irratibidearen Barrunbehar Zehar. Harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara</i> . Udako Euskal Unibertsitatea; Bilbo, 2000.	
STANLEY R. ALTEN. <i>Manual del Audio en los Medios de Comunicación</i> . Escuela de Cine y Video; Andoain, 1994.	
ZABALETA URKIOLA, Iñaki eta ZALAKAIN, Jexuxmari. <i>Informazioaren teoria eta teknika irradi eta telebista digital eta analogikoan</i> . UEU; Bilbo, 2004.	

7-2/ SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

Liburuak	Dokumentu elektronikoak
LOPEZ VIDALES, N. Eta PEÑAFIEL SAIZ, C. <i>Odisea, 21. La evolución del sector audiovisual</i> . Fragua argitaletzea, Madril, 2003 (103-116)	<i>Audacity</i> editorearen eskuliburua <i>Cool Edit</i> editorearen eskuliburua
LOPEZ VIDALES, N. Eta PEÑAFIEL SAIZ, C. <i>La Tecnología en Radio</i> . EHU; Bilbo, 2000.	

7-3 /WEB-GUNE INTERESGARRIAK

<http://audacity.sourceforge.net>
www.radiodigital.com/index.htm
www.podomatic.com
www.podcastellano.com
www.comunicandopodcast.com
www.consumer.es/web/es/tecnologia
www.easypodcast.com
<http://recursos.cnice.mec.es/bancoimagenes/sonidos/index.php>
www.blogak.com/irratiartea
www.ehu.es/irratia (eraikitzen)
www.drm.org
www.rtve.es/rne/rnedigital/index.htm
www.csa.fr
www.audiovisualcat.net.

7-4/ IRAKASGAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDIZKARIAK

Aldizkariak	Dokumentu elektronikoak

8.- ERANSKINAK